

Abenduaren 21eko 118/1999 FORU DEKRETUA, Ondarearen gaineko Zergaren salbuespena aplikatzeko enpresa eta lanbide jarduerak eta entitateetako partaidetzak bete beharreko beharkizun eta baldintzak zehazten dituena.

Abenduaren 26ko 6/2011 FORU ARAUAK, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duenak, bere bigarren amaierako xedapenean, zera ezartzen du, harik eta erregelamenduzko garapen berri bat onartu arte, eta aipatutako foru arauak jasotakoari aurka egiten ez dion guztian, ulertuko dela 1999ko abenduaren 21eko 118/1999 Foru Dekretua, Ondarearen gaineko Zergaren salbuespenak aplikatzeko enpresa eta lanbide jarduerak eta entitateetako partaidetzak bete beharreko beharkizun eta baldintzak zehazten dituena, indarrean dagoela, betiere 2008ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazkerari jarraituz.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: PERTSONA FISIKOEN JARDUERA EKONOMIKOAK	3
1. artikulua. Jarduera ekonomikoak	3
2. artikulua. Jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun, eskubide eta zorrak.....	3
3. artikulua. Salbuespena aplikatzeko betekizunak.	4
II. KAPITULUA: ENTITATEETAKO PARTAIDETZAK.....	4
4. artikulua. Entitateetako partaidetzak.	5
5. artikulua. Entitateetako partaidetzak salbuesteko baldintzak.	5
6. artikulua. Partaidetzak baloratzea eta salbuespenaren zenbatekoa zehaztea.	6
III. KAPITULUA: ARAU KOMUNAK.....	7
7. artikulua. Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboak.	7
8. artikulua. Beharkizunak eta baldintzak noiz bete.....	7
9. artikulua. Betebehar formalak	7
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	7
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	7
Lehena. Arauak emateko ahalmena.....	7
Bigarrena. Indarrean sartzea.....	7

Abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauaren 4. artikuluko hamargarren apartatuak, otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren bidez sartu zenak, salbuetsita utzi zituen Zergatik enpresa jarduerak garatzeko behar diren ondasun eta eskubideak eta entitateetako partaidetzak erregelamenduz finkatzekoak ziren baldintza jakin batzuk betez gero.

Martxoaren 14ko 21/1995 Foru Dekretuak, Ondarearen gaineko Zergaren salbuespena ezartzeko enpresa jardueren beharkizunak eta betebeharrak eta entitateetako partaidetzak zehazteari buruzkoak, erantzuna eman zion honen legezko aurreikuspenari.

Alabaina, kontuan izanik dekretu horrek hainbat idazketa izan dituela harrez gero eta Sozietateen gaineko Zergaren araudia eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena aldatu egin direla, aipatu foru dekretuan jasotzen den erregulazioa zaharkiturik geratu da.

Horrexegatik gertatu da foru dekretu hau eman beharra. 1995ekoak bezala, honek ere aipatu salbuespenaz gozatzeko bete behar diren beharkizun eta baldintzak finkatzea du helburu.

Horiek horrela, Lege Aholkularitzako Batzordearen txostena ikusirik, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren proposamenez, Diputatu Kontseiluak eztabaidatu ondoren gaurko bileran, honako hau

XEDATU DUT:

I. Kapituluak: Pertsona fisikoen jarduera ekonomikoak

1. artikulua. Jarduera ekonomikoak.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera jarduera ekonomikoko izaera dutenak hartuko dira enpresa eta lanbide jardueratzat, zeinen ondasun eta eskubide atxikiek Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauak 4. Hamar. Bat artikuluan jasotzen duen salbuespenerako eskubidea ematen duten.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun higiezinaren salerosketa edo errentan ematea jarduera ekonomiko gisa egiten dela ulertuko da baldin eta abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 20.3 artikuluan ezartzen dituen zirkunstantziak betetzen badira.

2. artikulua. Jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun, eskubide eta zorrak.

1.¹ Jarduera ekonomiko bati atxikitako ondasun eta eskubidetzat hartuko dira jardueraren xedeetarako erabiltzen direnak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak xedatutakoaren arabera, horien titularitatea subjektu pasiboarena bakarrik izan nahiz harena eta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena izan, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada.

2. Salbuespenaren ondorioetarako, ondasun eta eskubideen balioa, jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxitua, Ondarearen gaineko Zergaren arauen arabera kalkulatu da. Aipatu zorren zenbatekoa ez da inolaz ere berriro kontuan hartuko Ondarearen gaineko Zergaren oinarri ezargarria zehazteko.

3. artikulua. Salbuespena aplikatzeko betekizunak.

1.² Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arabera jardueran ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean aritzen den subjektu pasiboak baino ezingo du salbuespena aplikatu, eta horretarako Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauaren 7. artikulua ondare elementuen titularitateari buruz finkatzen dituen arauak hartuko dira kontuan, beti ere, jarduera hori subjektu pasiboaren errenta iturri nagusia bada. Salbuespena subjektu pasiboaren ezkontideak edo izatezko bikote lagunak ere, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, aplikatu ahal izango du elementu komunak direnean eta horiek subjektu pasiboak egiten duen jarduera ekonomikoari lotuta daudenean.

Ondorio horietarako, baldin eta subjektu pasiboaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriaren gutxienez %50 jarduera ekonomikoen etekin garbietatik badator, zenbateko hori hartuko da errenta iturri nagusitzat. Portzentaje hori betetzen dela zehazteko, konputatu gabe utziko dira subjektu pasiboak foru dekretu honetako 4. artikuluan apartatuan aipatzen diren entitateetan parte hartzeagatik jasotzen dituen ordainsariak, betiere foru dekretu honetako 5. artikulua 1 apartatuko a), b) eta c) letretan eskatutako baldintzak betetzen badira.

2. Subjektu pasibo berak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean bi jarduera edo gehiago egiten dituenen, salbuespena jarduera horiei atxikitako ondasun eta eskubideei aplikatuko zaie, eta aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, errenta iturri nagusia horien etekin guztiek eratzen dutela ulertuko da.

II. Kapitulua: Entitateetako partaidetzak

¹ 1 zenbaki hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUAren 2. Artikulua 2. Bat zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. Nolanahi ere, artikuluetan espresuki jasotako ondorioak gertatuko dira. (2004-12-30ko GAO).

² 1 zenbaki hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUAren 2. Artikulua 2. Bi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. Nolanahi ere, artikuluetan espresuki jasotako ondorioak gertatuko dira. (2004-12-30ko GAO).

4. artikulua.³ Entitateetako partaidetzak.

Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsita geratuko dira entitateetako partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufuktu eskubidea, betiere ondorengo artikuluan adierazitako gainerako baldintzak betetzen badira.

Ondorio horietarako, partaidetzatzat hartuko da entitate baten kapitalaren edo ondarearen gaineko titularitatea.

5. artikulua. Entitateetako partaidetzak salbuesteko baldintzak.

1.⁴ Aurreko artikuluan aipatzen den salbuespena aplikatu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira

a) Entitateak modu eraginkorrez egitea jarduera ekonomiko bat eta bere jarduera nagusia ez izatea ondare higikor edo higiezin bat kudeatzea. Ulertuko da entitate batek ez duela ondare higikor edo higiezin bat kudeatzen eta, beraz, jarduera ekonomiko bat egiten duela baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 66. artikulua aplikaturik, entitate horrek ez baditu behar diren baldintzak betetzen bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez badago.

Entitateak beste entitate batzuetan ere parte hartzen duenean, ulertuko da ez duela ondare higikor bat kudeatzen, baldin eta, entitate horietan zuzenean boto eskubideen %5 gutxienez edukita, haien partaidetzak zuzendu eta kudeatzen baditu baliabide pertsonal eta materialak antolatuz; horretarako beharrezkoa izango da, dena den, entitate partizipatuen jarduera nagusia ondare higikor edo higiezin baten kudeaketa ez izatea edo, bestela, entitate horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 66. artikuluen 1. apartatuko a) eta b) letretan jasotako kasuetako bat gertatzea.

b) Entitateak sozietate izaera hartzen duenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 66. artikuluen ezartzen dituen kasuak ez gertatzea, salbu artikulua horretako 2 apartatuan aipatutakoa bada.

c) Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza gutxienez %5ekoa izatea banaka konputatuz gero, edo %20koa ezkontidearekin edo izatezko bikote lagunarekin, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, aurreko ahaideekin edo ondorengoekin edo bigarren mailako zeharkakoekin konputatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunekoa, ezkontzakoa edo adopzioakoa izan.

³ Artikulu hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUaren 2. Artikuluaren Hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. Nolanahi ere, artikuluetan espresuki jasotako ondorioak gertatuko dira. (2004-12-30ko GAO).

⁴ 1 zenbaki hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUaren 2. Artikuluaren Lau zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. Nolanahi ere, artikuluetan espresuki jasotako ondorioak gertatuko dira. (2004-12-30ko GAO).

d) Subjektu pasiboak zuzendaritza lanak egitea benetan entitatearen barruan, eta horregatik beren lanaren eta jarduera ekonomikoen etekin guztien %50etik gorako ordainsaria jasotzea. Ondorio horietarako, jarduera ekonomikoen etekinak konputatu gabe utziko dira haiei lotutako ondasun eta eskubideak zerga honetan salbuetsita daudenean.

Zentzu horretan, honako karguok hartuko dira zuzendaritza lantzat, kontratuarekin edo izendapenarekin behar bezala kreditatu ondoren: lehendakaria, zuzendari nagusia, gerentea, administratzailea, departamentuko zuzendariak, kontseilariak, eta administrazio kontseiluko edo antzeko administrazio organoko kideak. Kargu horietako edozein betetzeak berarekin ekarriko du enpresaren erabakietan benetan esku hartzea.

Entitatean dagoen partaidetza apartatu honetako c) letran aipaturiko pertsona batekin edo batzuekin batera egiten denean, zuzendaritza lanak eta hortik datozen ordainsariak ahaidetasun taldeko pertsona batengan bete beharko dira gutxienez, baina hori ez da eragozpen izango horiek guztiek salbuespen eskubidea izan dezaten.

Partaidetzak inbertsio kolektiboko erakundeetakoak direnean, salbuespen hau ez zaie inola ere aplikatuko.

2. Pertsona bat partaidetzen titularra denean zenbait entitatetan, eta horietan aurreko apartatuko a), b), c) eta d) parrafoetan zerrendatutako baldintzak betetzen direnean, d) parrafoan aipatu den portzentaia bereizita kalkulatu da entitate horietako bakoitzerako.

Zentzu horretan, entitate bakoitzean egindako zuzendaritza lanen ordainsariari subjektu pasiboaren lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinetan zein portzentaia dagokion kalkulatzeko, etekin horien artean ez dira sartuko beste entitateetan egindako zuzendaritza lanetatik eratorritakoak.

6. artikulua. Partaidetzak baloratzea eta salbuespenaren zenbatekoa zehaztea.

1. Salbuespena partaidetzen balioari bakarrik aplikatuko zaio, eta hau Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. Bat artikuluan ezartzen dituen erregelen arabera kalkulatu da. Jarduera ekonomiko bati atxikitako aktiboen - jarduera horretatik eratorritako zorrek gutxituak- eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa hartuko da kontuan.

2. Entitateak dituen aktiboen nahiz zorren balioa kontabilitatetik ondorioztatuko da, entitatearen benetako ondare egoera zintzoki jasotzen duenean. Kontabilitaterik ezean, balio horiek Ondarearen gaineko Zergaren irizpideen arabera zehaztuko dira.

3. Ondare elementu bat jarduera enpresarial bati atxikita ote dagoen erabakitzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 22. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, c) parrafoaren azken hitz-tartean aurreikusitako aktiboei dagokienean izan ezik. Ez dira inoiz elementu atxikitat hartuko subjektu pasiboak edo foru dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen den ahaidetasun taldeko edozeinek beren probetxurako soilik erabiltzen dituztenak edo, Sozietateen gaineko Zergaren foru

arauak 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, lotutako pertsona edo entitateei merkatuko prezioetik behera lagatzen zaizkienak.

III. Kapituluak: Arau komunak

7. artikulua. Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboak.

Ondare elementuen edo entitateetako partaidetzen titularrak adingabekoak edo ezinduak direnean, 3. artikulua 1. apartatuko lehen parrafoan eskaturiko beharkizunak eta 5. artikulua 1. apartatuko d) parrafoan jasotzen den baldintza, hau da, subjektu pasiboak zuzendaritza lanak egitea benetan entitate batean, beteta geratuko dira legezko ordezkariak betetzen dituztenean.

8. artikulua. Beharkizunak eta baldintzak noiz bete.

Ondarearen gaineko Zergan salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoak diren beharkizunak eta baldintzak Zergaren sortzapen unean bete beharko dira.

9. artikulua. Betebehar formalak.

Subjektu pasiboek Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenean adierazi beharko dute enpresa jardueraren zein ondasun, eskubide eta zor, horien balioa barne, geratzen diren salbuetsita Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauaren 4. artikuluko hamargarren apartatuan xedatutakoaren arabera, eta, orobat, zein partaidetza eta horien balioaren zein zati salbuesten diren artikulua horri jarraiki.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da martxoaren 14ko 21/1995 Foru Dekretua, Ondarearen gaineko Zergaren salbuespena ezartzeko enpresa jardueren beharkizunak eta betebeharrak eta entitateetako partaidetzak zehazteari buruzkoa.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak behar diren xedapen osagarriak eman ahal izango ditu foru dekretu honetan xedatutakoa bete dadin.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 21eko 99./2004 FORU DEKRETUA, aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena. (2004-12-30ko GAO).*
 - Bere 2. Artikulua honako prezeptu hauek aldatu ditu: 2. Artikuluaren 1 zenbakia, 3. Artikuluaren 1 zenbakia, 4. Artikulua eta 5. Artikuluaren 1 zenbakia.